

Administrazio publikoa eta parte-hartzea: Altzako Garapen Komunitario Plana (Donostia)

Elisabet Arrieta Aranguren
EHU. Parte Hartuz Ikerketa Taldea

Jarraian aurkezten den idatzi hau, parte-hartzeak duen gaurkotasunaz eta bereziki Administrazioak duen erronkaz hausnartzeko ahalegin txiki bat besterik ez da. Ardatz nagusia Udako Euskal Unibertsitateak Miarrizten 2004ko uztailean antolatutako saio batean agertutakoa izango da.

Lehenik, derrigorrezkoak diren zenbait azalpen teoriko egitea komeni dela iruditzen zaigu, eta jarraian, gaur egun abian jarri den esperientzia baten berri emango dugu. Beraz, bi atal bereiziko ditugu: batetik, teoriatik berreskuratuko ditugun kontzeptu batzuk, eta bestetik, azterketa praktiko bat, Donostiako Udalak 2002ko azaroan martxan jarri zuen Altzako Garapen Komunitario Plana.

The document presented below is only a small effort made in reflecting on the contemporary nature that political participation implies and especially the challenge facing Government. What has been stated and which appeared in a session organized by the Summer Basque University in Biarritz in July 2004 will serve as the central point of discussion.

First of all, it is our opinion that it is best to present several necessary theoretical explanations but, as we go on, what we would like to stress the most is that we are reporting on an experience that is presently under way. Thus, we shall divide it up into two sections: 1. Some concepts which we shall derive from theory 2. A practical analysis of the Community Plan for Developing Altxa which was launched by the Donostia-San Sebastian City Council in the Summer of 2002.

Sarrera

Guztiaren muinetan kontuan izan behar dugu publikotasunak eduki beharko lukeen dimentsioa, hau da, baldin eta esparru publikoa ez badugu talde-arduratzat hartzen, ez dugu pausorik emango parte-hartzearen inguruan. Beste batzuen lana bilakatzen dugun bitartean, eta ez norberarena, mesede kaskarra egingo diogu parte-hartzeari eta bere etorkizunari.

Dena den, ez gara gai berri batez ari, nahiz eta lerro hauetara dakargun esperientziaz mintzo. Errealitate puntu batekin aritzea komeni da eta esan behar da parte-hartzeak beharrezkoak dituen praktikek ez dutela, oraingoz behintzat, barneratuak ditugun jarrerekin bat egiten eta Administrazioak modu normalizatu batean martxan jarri beharko lituzkeen esperientziak oraindik urrunegi dauzkagula. Beraz, lorpenaz baino areago erronkaz arituko garela azpimarratuta, bidea ireki besterik ez da egin eta oraindik asko dago egiteko.

Arrazoi asko dira tartean. Alde batetik, teoriar aritzea eta egin beharko litzatekeena diseinatzea errazagoa da praktikan zerbait gauzatzea baino. Parte-hartzea bultzatzeko behar diren estruktura eraikitzea askozaz zailagoa da, nahiz eta, ahoz behintzat, politikariek, teknikariek eta herritarrek parte-hartzea bultzatzearen beharra adostuta duten. Hala ere, praktikan aritzean eginbeharrekoa zaila da, kreatibitatea, inizatiba eta akordioa beharrezkoak dira oso eta teoriar dagoen adostasuna ez da beti praktikan gauzatzen.

Parte-hartzea eskatzen duten prozesuak ez ditugu abian jarriko, baldin eta apustu politiko eta akordio garrantzitsu bat izenpetzen ez bada. Akordio horrek bere baitan derrigorrezkoa du politikarien, teknikarien eta herritarren onarpena.

Hortik aurrera bakarrik saia gaitezke benetako ekintza parte-hartzaileak bultzatzen eta gauzatzen.

Esan bezala, konpromiso politikoari ezinbestekoa den konpromiso tekniko bat dagokio. Zalantzarik gabe, lan galanta eskatzen du honek, "plus" berri bat, lan egiteko era berri bat, inertzia eta betikotasunetik urrun, baina ezinbestekoa delakoan gaude.

Administrazioaren baitan parte-hartzeaz aritzeko, zeharka lanean aritzea nahitaezkoa dugula azpimarratu nahiko genuke. Dagoeneko ezin da departamentu bakar batetik egiten den lana mantendu, nahiz eta bertakoa garrantzitsua izan. Beharrezkoa da departamentu askoren inplikazioa, espazio berrien sorkuntza eta horretarako beharrezkoa da teknikarien borondatea eta lana.

Politikariak eta teknikariak aipatu ondoren, beharrezkoa egiten zaigu hirugarren taldeaz aritzea: herritarrak.

Herritarrek aspaldi honetan motibazio falta handia bizi dute politika eta politikarien eskutik. Gauzak horrela, zaila da ilusioa eta poza sortzea, are gehiago egin dezaketen lanaz eta eduki dezaketen tokiaz oso kritikoak direnean.

Espazio eta betebeharrak berri horien duintasuna lortzea, ilusioa berreskuratzea, gardentasunaren eta zuzentasunaren eskutik, benetako erronka garrantzitsuak

dira eta parte-hartzeak erantzun behar dio horri guztiari etorkizunari begiratu nahi badio.

Zalantzarik gabe, herritarrek oro har eta elkarteek bereziki gauza asko dute mahai gainean jartzeko, baina ezin dezakegu ahaztu autokritikaren beharra ere badagoela. Ziur asko elkarteek urtetan izandako ereduak zaharkituta gelditu dira eta are gehiago, gaurko errealitate konplexuari erantzuteko zailtasunak izatea gerta daiteke. Argi dagoena da aldaketa behar-beharrezkoa dela, aurrera joan nahi badugu.

Parte-hartzeak, gauzak diren bezala, lana eskatzen du eta gainera oso zaila memento askotan, baina ezin da ahaztu aukera bat dela konpromisoak lortzeko, edukiak berritzeko eta oinarrizko sareak zabaltzeko. Gauzak horrela, udal baten saiakera bere herritarrengandik gertu egotea litzateke eta sortzen diren aukerak, erabili behar ditu.

Parte-hartzearen inguruan esperientzia bat baino gehiago dago eta azken urte hauetan ugaldu egin dira, debate teorikoa eta batez ere bere praktika bultzatuz. Hala ere, behin betiko saltoa falta zaigu: alde guztien konpromisoa eta sortzen diren prozesuei metodoa eta baliabideak eskaintzea.

1. Parte-hartzearen testuingurua

Bizi dugun testuingurua aztertzeko, kontzeptu batzuk aurreikusi beharko genituzke, gaien errazago koka gaitezen. Hala nola, globalizazioa eta haren ondorio batzuk ikusi, demokrazia parte-hartzailearekin segitu eta komunitatearen indarberitzearekin amaitu.

Parte-hartzeaz ari garenean ezinbestekoa zaigu globalizazioaz aritzea. Gure helburua ez da kontzeptu honetan sakontzea, beste askok hala egin baitute (Albarracín, 1977; Etxezarreta, 2001; Mária i Serrano, 2001; Castells, 1997).

Baina garrantzitsua da kontzeptua agertzea, bereziki bere dimentsio giza politikoa, zeren eta estatuetan eragin zuzena baitu eta gain-nazionalizazio baten aurrean baikaude (Fontela, 2001). Ondorioz, estatua baino beheagoko botereak protagonismo berri bat eskuratzen ari dira (Casas Minguéz, 2000:124), eta zuzenean esparru lokalak berreraikitzen.

Kontraesana dirudien arren, globalizazioa maila lokala indartzen ari da, errealitateari oso lotuta dagoen esparrua, non eguneroko bizitza "arruntak" gero eta garrantzi handiagoa jasotzen duen.

Globalizazioak eta lokalizazioak, hau da *glokalizazioak*, orekatzen ditu bi ikuspegi eta bi errealitateak.

Udalak eta herritarrak, maila lokal honetan, askoz gertuago egon daitezke eta herritarrekiko administrazioaren gertutasuna (subsidiaritatea) errealitate bihurtu, akordioen babesean lan komuna lortzen saiatuz. Horrela, bizi-kalitatea, denon, herritarren eta administrazioen, helburu suertatzen da.

Esan bezala, gaiari eutsiz, garrantzitsua den beste elementu bat Demokrazia Parte-hartzailea da. Demokrazia herritarren parte hartzean oinarritutako praktika politiko bat izango litzateke, baina ez da beti horrela gertatzen. Ezagutzen dugun demokrazia ordezkatzeko-sisteman dago oinarritua. Hau da, herritarrek aurkeztutako ordezkariak beraien interes eta iritziak defendatzen dituzte eta zuzen-zuzenean herritarren lana lau urtean behin, gehienetan, eta oso modu puntual batean amaitzen da.

Demokrazia parte-hartzailean ideiarik esanguratsuena urrutiago doa eta, zalantzarik gabe, helburua ohiko demokraziaren mugak gainditzean datza. Herritarrak izango lirateke boterearen jabe eta arduradun.

Demokrazia parte-hartzaile batek konpromisoak, ideien bilaketa, aukera eta konponbide ugari eskatzen dizkie herritarrei, denon artean guregan eragina duten gaiei aurre egiteko. Herritarrentzat demokrazia ordezkatzaila ez da nahikoa. Dagoeneko begi-bistan dago demokraziaren indarra herritarren energia-iturritik elikatzen dela eta, gauzak horrela, komeni da herritarra zaintzea, motibatzea, akuilatzea eta bere indarrak bideratzen laguntzea.

Esatea erraza da, baina dudarik gabe, herritarren interesik eza, geldotasuna eta alderdi politikoekiko konfiantza-krisia herritarren borondatea ordezkatzeko, gai garrantzitsuak dira eta plazaratzen ditugu, hau guztia nola gainditu erronka hartuta.

Aipatu nahiko genukeen hirugarren atalak Komunitatearen ideia dakarkigu.

Kontzeptua azaltzerakoan “gu” izaera eta identitatearekin zerikusia duela esan genezake. Bereziki barne-harreman sendoak eta antolatuak direnean arituko ginateke (Ware, 1986; Quintana, 1991; Kisnerman, 1984; Ander-Egg, 1987; Nogueiras, 1996; Lesta, 2001; Subirats, 2002; Marchioni, 1987).

Komunitatearen gaurkotasunak ez du zerikusirik antzinako ideia zaharkitu batekin. Gaurko gizarteak komunitateaz duen ikuspegiak interesa agertzen duela esan daiteke eta bereziki banakako eta taldekako identitateei lotuta dago (Touraine, 1994; Malagón, 1999).

Komunitatea berbideratzeak gizartearen errealitatea aldatzeko ahalmenarekin zerikusia izango du, baliabide berri bat izatera iristeko ekimen berriak bultzatuz eta, oso bereziki, Administrazioarekin batera lan komuna egiteko aukera bultzatuz.

2. Herritarren parte-hartzea

Parte-hartzeaz ari garenean, herritarra izatearen kategoriaz ari gara. Hau da, populazioa mendekotasunetik aske gelditzen den unetik has gaitzke herritarrez hitz egiten, beren duintasun, baliabide, betebeharrak eta ardurekin.

Rezsóhazy-ren iritziz (1988:23) honakoa suposatzen du:

- Herritarrek dauzkaten arazoaren jabetasuna eta aurre egiteko kontzientzia.

- Gizarte aldatu behar den beharra, bertakoen kulturaren baitan eta, dauzkaten baliabideekin.
- Konponbideen bilaketa komuna, eta beharrezkoa izanez gero, ikuspegi berri baten sorkuntza.
- Baldintza berrien sorrera jarrera dinamikoaren eskutik, eta iniziatibak bideratzeko ahalegin berriak.

Hau da, parte-hartzea, gertakarien jabetza eta kontzientzia, eta, azkenik, aldaketa, nahi eta nahi ez lotuta doazen elementuak dira (Marchioni, 1994).

2.1. Parte-hartzearen ezaugarri batzuk

- Hezkuntza-dimentsioa

Herritarrak horrelako prozesu batean hezi gaitzen, denok batera. Balioen aldaketa, bestelako jarrerak lantzea eta harreman-mundua hobetzea izango lirateke helburuak.

- Aktoreak

Lurralde-administrazioa (politikariak eta teknikoak) eta herritarrak (elkarteetan antolatutakoak eta banakoak, antolatu gabe parte hartu nahi dutenak). Bakoitzak bere leku eta betebeharrak argi ezagutuz.

- Aldaketaren alde

Parte-hartzea erdibideko baliabidetzat hartzen dugu, bere baitan amaitzen ez dena, eta ez helburutzat soilik. Helburuak, aldiz, aldaketa lortzearekin izango luke zerikusia.

- Lidergoa eta ekimenak

Gehienetan Administrazioa izaten da ekimenak bultzatzen dituenak, baina ez du zertan horrela izanik beti. Aldiz, badira herritarrek edo zerbitzuek bultzatzen dituzten bestelako ekimenak.

Dena den, elkarren arteko mesfidantzak kalte ugari egiten du, gaizki-ulertuetan oinarrituz askotan, baita ezjakintasunean ere. Elkarren arteko balorazioa indartzen ez den bitartean, lidergo komuna kolokan litzateke.

- Proiektu zehatzen beharra

Nahitaezkoa da proiektu zehatzen eta abian jartzen direnen diseinua. Helburu argiak, betebeharrak jakinak eta denbora errealean oinarritzen dira eta beharrezkoak dira.

3. Altzako Garapen Komunitarioa

3.1. Kokagunea, historia eta hiri-garapena

Komunitate guztiak bizi izandako historiaren ondorio dira. Hau ere, noski, gertatzen da Altzan. Datu deigarrienetarikoa bat Donostiarekin bizi izan dituen

desanexio-garaiak izan dira eta, gaur egun, elkarte batzuek mantentzen duten ikuspegia litzateke.

Beste atal garrantzitsu bat Altzak bizi izan duen hiri-garapena da.

Altza Donostiako zonalde periferiko bat da, mendixka batean dagoena eta horrek bere itxura fisikoan ez eze, beste gauza askotan ere izan du eragina.

Baserritarra izan zen garai batean eta nahiz eta gaur egun oraindik baten batzuk agirian izan, benetako iraultza 60ko hamarkadan immigrazioaren eskutik etorri zen.

Immigrazioak aldaketa ugari bideratu zituen eta, ondorioz, oso garapen kaotikoa izan zuen, neurri batean gaur egun oraindik mantentzen dena. Harrezkero, Altzak kutsu “marjinala” izan du, zerbitzu-behar handiarekin eta etxeen kalitate kaskarrarekin gehientsuetan. 70eko hamarkadan etxebizitza handiak eraiki ziren, dorre modukoak, gorantz 10 eta 16 arteko solairuekin.

Azken urteetan (hamabi bat gutxi gorabehera), auzoa berrantolatzeko eta duinago egiteko saiakera izan da. Horretarako neurri zehatzak hartu izan dira, batzuetan polemikoak, baina ez da idatzi honen helburua haien berri ematea.

Kontuak kontu, egun, Altza proiektu garrantzitsuen protagonista da. Honen harira, eta Altzako Garapen Planari dagokionez, Urban diru-laguntza europarra aipa daiteke, baita Izartu laguntzak ere (Eusko Jaurlaritza eta Donostiako Udala). Bai batak eta bai besteak, beste gauza batzuen artean, aipatzen ari garen Plana abian jartzeko diru-iturria suposatu dutelako.

3.2. Altzako Garapen Komunitarioaren aurrekinak eta lehen urratsak

Altzak betidanik ezagutu du herritarren parte-hartzea. Adibide gisa, bertako elkarteen kopurua aipa daiteke eta, egun izandakoa ez izanik, Donostiako elkarte gehien dituen auzoa da.

Estatuan 70eko hamarkada oso gatazkatsua izan zen elkarte mugimenduarentzat. Ezinbestekoa zen hori bera Donostian ere gertatzea eta zer esanik ez, Altzan. Garai haiek bizi dituztenek garbi esaten dute zerbait lortu nahian, edozein hobekuntzagatik gogor borrokatu behar izan zutela, baina prest zeudela.

Gauzak horrela, aipatu behar den beste aurrekin garrantzitsu bat, Altzan izan den elkarte koordinakundea izan da. Berak bideratu zituen gaiaren inguruko lehen urratsak eta hari zor dizkiogu pausu erabakigarri haiek.

Baina Planaren hasiera, Alztarren eskaerari erantzunez, Donostiako Udalak, bereziki Parte Hartze eta Auzoak deritzon departamentuak Altzako Garapen Komunitario Plana martxan jartzeko hiru pertsona kontratatzen dituenean gauzatzen da. Hiru pertsona horiek ekipo teknikoa osatzen dute eta proiektuaren baliabide aproposak izango dira.

Lehenengo aldiz gauzatzen da horrelako esperientzia bat Euskadi mailan, eta baditu bere baitan erronka galantak: alde batetik ez dago konparaketa egiteko

bestelakorik, eta bertan lan egiten dugunok bakardade metodologikoa deritzona barneratuta dugu.

Bestetik, gaiaren erdi-erdian kokatzen gara eta egindako guztia kritikatu izan daitekeela ere azaldu behar da.

3.3. Helburuak, ekintzak eta Altzako Garapen Komunitario Planaren metodologia.

Altzako Garapen Komunitario Plana herritarren parte-hartzeari buruzko esperientzia bat da, eta bere eginkizuna errealitatea aldatzeaz gain, herritarren bizi-kalitatea hobetzea da.

Helburuei dagokienez, laburki, honako hauek dira:

- Altzako herritarren arteko parte-hartze handiagoa lortzen saiatzea, auzoko bizi-kalitatea hobea dadin.
- Altzako elkartearen arteko harremanak berbideratzea, erraztea eta sendotzea.
- Donostiako Udalak maila politikoan eta teknikoan demokrazia parte-hartzailearen mekanismoak onar ditzala, eta Altzan egiten diren udal-ekintzek koordinazio maila hobea izan dezaten lortzea, proiektua globaltasun baten barruan koka dadin.

Ekintzei dagokienez, jarraian aurkezten direnak finkatu ziren hasieran, baita berri batzuk ere, gero agertuko direnak, etengabeko prozesu honetan antolatuta.

- *Beharren Diagnostikoa* prestatu pertsona esanguratsuak elkarriketatuz, Altzako elkarteekin bilduz, hamabi eta hemezortzi urte bitarteko gazteekin bilduz eta Altzan lanean ari diren tekniko eta profesionalen iritziak jasoz.
- Altzako Garapen Komunitarioaren *Batzordea* sortzen da, non elkarte, herritar, zerbitzuetako profesional, gazte, eta udaleko politikari eta teknikariek parte hartzen duten.
- *Auzoko Tailerra* izenekoan politikari, teknikari eta Altzako herritar eta elkarteak elkartu, lehenetsunak finkatu eta elkarren arteko lan-ardatz nagusiak aukeratzeko asmotan. Tailerraren garrantzia handia zen, denen artean konpromisoak zehazteko eta etorkizunerako bideak finkatzeko.
- *Lan-taldeak*. Bertako herritarren interesak kontutan izanik, lan-taldeak antolatzen dira, gaiak aztertu eta Udalari ikuspegi berriak eskaintzeko.
- Gainerako erakunde eta garapen-planekin harremana.

Metodologikoki Planak lau atal ditu: Diagnostikoa, Plangintza, Ekintzen gauzatzeta eta Ebaluazioa. Dagoeneko lehenengoa, bigarrena eta hirugarrena martxan daude, baina ezin daiteke esan atal bakar bat bukatu denik, etengabe jarraitzen duelako lanak aurrekoak aztertuz eta berbideratuz. Ebaluazioari dagokionez, zenbait egoeratakoa eginda egon arren, proiektu osokoa oraindik ez da prestatu.

Diagnostikoaren abiapuntua, herritarren iritziak jasotzea izan da. Horretarako elkarteekin egin zen lan (49), hainbat esparrutako profesionalekin (Udal Ongizate departamentua, Kultura, Hezkuntza, Teknologia Berriak, Osasuna eta Eliza ezberdinak), baita 12-18 bitarteko gazteekin ere. Denen artean emandako

informazioarekin txosten bat osatu zen, *Altzako Beharren Diagnostikoa* izenekoa. Azpimarragarriena da, informazioa emateaz gain, bertan parte hartu dutenek, Altzako Garapen Komunitarioa bultzatzeko konpromisoa agertu dutela.

Txostena prestatu eta Altzan aurkeztu ondoren, udalera eraman zen eta politikariei eta teknikariei azalpen nagusiak 2003ko ekainean eta uztailean egin zitzaizkien.

Helburua, noski, jasotako informazioa batzuei eta besteei aurkeztea izan zen, ordenatutako modu batean azalduta eta, aldi berean, udaleko politikariei eta teknikariei Altzako errealitatea, han bizi direnen ikuspegitik, gerturatuta.

Egindako aurkezpenak, dudarik gabe, elkarrekin lan egiteko bidea ireki zuen, zailtasunez josia, baina gainditzeko borondatearekin.

3.4. Erronkak eta ondorio batzuk

2003ko azaroan, Planaren egoera aztertu eta lehenago finkatutako zenbait ekintzaren jarraipena egitea erabaki zen, jarraian aurkezten diren beste berri batzuk atxikiz.

- Altzan kokatuta dauden hainbat zerbitzutan lan-saioak, bertako lana komunitateak ezagutu eta informazioa eskura dezan.
- Auzokoek proiektu zehatzetan parte hartzeko aukera, iritzia agertu dezaten eta jarrerak argudia ditzaten. Bereziki bi proiektu daude landu nahi direnak: *Elizasu* plaza eta *Nerekan* lur-sailaren diseinua.
- Hiririari eta Altzari dagozkien zenbait proiekturen inguruan lan-saioak: *Audit-Akular*.
- *Mugikortasuneko* proiektua. Udaleko Mugikortasun departamentuarekin, Altzako ikastetxeekin, Altzako Planeko elkarteekin eta bertako zaharren egoitzako pertsonekin egindako lan komuna litzateke. Denen artean eta elkarrekin, *Eskola Bidea* proiektua egiteko asmoa azaldu zen, neska-mutilek eskolara oinez joateko, denen laguntza eta babesarekin.
- *Aurrekontu parte-hartzailean* lanean aritzea, proposamenak eginez eta gaiari jarraipena eskainiz.
- Euskadiko Gaztediaren Kontseiluaren eskaerari erantzunez, aurrera daramaten *Immigrazioko* proiektuan parte hartzea.
- *Udal Droga-mendekotasun* Planaren inguruan lan-saioak.
- Parte-hartzearen inguruan aritzen diren *Foroetan* azalpenak.

Azkenik, gogoan izan nahi dugu, parte-hartzailea izan nahi duen prozesu bat eraikitzeko derrigorrezkoa dela aktore guztien konpromisoa, elkarlana, entzuteko, hurbiltzeko eta akordioetara heltzeko gaitasunaz gain.

Hasitako bideak zailtasunak dauzkala eta izango dituela nabarmena da, baina parte-hartzean, mantso, sinisten hasi gara guztiok.

Bibliografía

- Albarración, J. (1997): "Una aldea global regida por la ley de la selva", *Exodo*, **39**, 4-11.
- Ander-Egg (1987): *Metodología y práctica del desarrollo de la Comunidad*, Humanitas, Buenos Aires.
- Bauman, Z. (1998): *La globalización. Consecuencias humanas*, FCE, Buenos Aires.
- , (2001): *La posmodernidad y sus descontentos*, Akal, Madrid.
- , (2003): *Comunidad. En busca de seguridad en un mundo hostil*, Siglo XXI, Madrid.
- Beck, U. (1998): *¿Qué es la globalización?*, Paidós, Bartzelona.
- , (1999): "Hijos de la libertad: contra las lamentaciones por el derrumbe de valores", in Beck, *Hijos de la libertad*, FCE, Buenos Aires.
- , (1999): "Los padres de la libertad", in Beck, *Hijos de la libertad*, FCE, Buenos Aires.
- , (2000): *La democracia y sus enemigos*, Paidós, Bartzelona.
- Borja, J. eta Castells, M. (1997): *Local y global. La gestión de las ciudades en la era de la información*, Taurus, Madrid.
- Brugué, Q. eta Gomá, R. (1998): *Gobiernos locales y políticas públicas*, Ariel, Bartzelona.
- Casas Mínguez, F. (2000): "Algunos enfoques sobre política social", *Cuadernos andaluces de bienestar social*, **8**, 115-126.
- Castells, M. (1997): "El futuro del Estado del Bienestar en la sociedad informacional" *Giner y Sarasa, Buen Gobierno y Política Social*, Ariel, Bartzelona, 173-189.
- Céspedes, J. M. (2001): "La participación ciudadana desde el ámbito municipal", in M. Marchioni, *Comunidad y Cambio Social. Teoría y praxis de la Acción Comunitaria*, Editorial Popular, Madrid.
- Delors, J. (1996): "De la cohesión social a la participación democrática", en *La educación encierra un tesoro*, Santillana-Ediciones UNESCO, Madrid.
- Domínguez, I. (1994): "Ciudadanía, participación y cultura en las sociedades avanzadas", *Inguruak*, **9**, 89-103.
- Etxezarreta, M. (2001): "Algunos rasgos de la globalización", *Revista de Documentación Social*, **125**, 35-60
- Font, J. (2001): *Ciudadanos y decisiones públicas*, Ariel, Bartzelona.
- Fontela, E. (2001): "Globalización y cohesión social", *Revista de Documentación Social*, **125**, 183-200.
- Kisnerman, N. (1984): *Comunidad*, Humanitas, Buenos Aires.
- Lesta, E. (2001): "Participación y desarrollo. La aportación de la psicología comunitaria", in M. Marchioni, *Comunidad y Cambio Social. Teoría y praxis de la Acción Comunitaria*, Editorial Popular, Madrid.
- Malagón Bernal, J. L. (1999): *Fundamentos del Trabajo Social Comunitario. Bases teóricas y metodológicas para la intervención comunitaria*, Aconcagua libros, Sevilla.
- María i Serrano, J. F. (2001): "La globalización", *Revista de Documentación Social*, **125**, 15-34.
- Marchioni, M. (1987): *Planificación social y organización de la comunidad*, Popular, Madrid.
- Mouffe, Ch. (1999): *El retorno de lo político. Comunidad, ciudadanía, pluralismo, democracia radical*, Paidós, Bartzelona.
- Nogueiras Mascareñas, L. M. (1996): *La práctica y la teoría del desarrollo comunitario. Descripción de un modelo*, Narcea, Madrid.
- Nussbaum, M. (1999): *Los límites del patriotismo. Identidad, pertenencia y ciudadanía mundial*, Paidós, Bartzelona.
- Pindado, F. (2000): *La participación ciudadana en la vida de las ciudades*, Del Serbal, Bartzelona.

- Rezsohazy, R. (1988): *El Desarrollo comunitario: participar, programar, innovar*, Narcea, Madrid.
- Sennet, R. (2001): *Vida urbana e identidad persona*, Península, Barcelona.
- Subirats, J. (2002): "Educación y territorio. El factor proximidad y de comunidad en las políticas educativas", in J. Subirats, *Gobierno Local y Educación. La importancia del territorio y la comunidad en el papel de la escuela*, Ariel, Barcelona.
- Touraine, A. (1994): *¿Qué es la democracia?*, Temas de Hoy, Madrid.
- Quintana, J. M. (1991): *Pedagogía comunitaria*, Narcea, Madrid.
- Villasante, T. (1995): *Las democracias participativas*, Ediciones HOAC, Madrid.
- Ware, C. (1986): *Estudio de la comunidad: cómo averiguar recursos, cómo organizar esfuerzos*, Humanitas, Buenos Aires.

